

Noiz ezkondu?

Erdia izan oi da osoaren neurri. Orrela, gauza askotarako lez, ezkontzeko be: erdi maillan jartea egoki izan. Ezta, ba, ezkondu bear ez lar gazte, ez zaaturik. Erriak sen ona

ERRONDA EKUS-EZIÑA

Ai! nok jantzi dautzu, ene seme, soñeko txoa margoz? Nok jarri dautsa zure gorputxoari jantzi gorritzka ori? Gour goizean, ziburu-zaburuka, larriñera urten zara, julasketara. Baiña, esan eidakuz, nok jantzi dautzu soñeko ori margoz, kolorez?

Esan, arren, ene bizi-lorea, zek daragizu barre? Poz-estitan daukazu ama, atarian geldi. Eskuak ikutzen dautzuz, ta aren apaingarriak ots-dagie bulunba antzera, ta zuk, ene artzaintxo, dantzan diarduzu banbu-zoiza eskuan. Baiña zek daragizu barre, ene bizi-lorea?

Eskale baiñintzaz, zer nai dozu orrela dingilitzka, esku biakaz amari lepotik orutu? Oi biotz txiki artega! zeruari mundua ebatsi, ostu nai ete dautsuzu, sagar-ale baiñintzan, eta gero zeure esku barru larrosazkoan ipiñi? Ai, eskaletxo! zer da, esan, eskutzen daustazuna?

Poz- gainezka, aizeak ba-daroaz zure orkatil-estunetako kanpai txikien txintxin-ots gozoak. Barrez daukazu eguzkia, zu orrela jantzirik ikusita. Zeru a zaindari dozu amaren besoetan lo zagozan bitartean; eta goiza beatz gainean datorkizu kuma ondora, begi ertzetan mun ezta ezartera. Aize poz-argiak ba-daroaz zure orkatil-estunetako kanpai txikien txintxin-ots gozoak.

Ames sorgiñen amandrea be or dator egun-sentian, zeru zear, zureganaiño egazka. Mundu amaren biotz min guztia zurekin dozu, zure amaren biotzean. Zure leio azpian txirula joten dau izarren kantariak Eta ames sorgiñen amandrea or dator egun-sentian, zeru zear, zureganaiño egazka.

R. TAGORE

dau geienik, eta ez dau ondo esaten gazteegi ezkontzen danagaitik; zaar bi ezkontzen diranean, barriz, a zelako arran, txilin, pertz-otsa ezkonbarri ule-zuriak eleizatik urtetakoa! Belarriak itxi egin bear.

Ez gazteegi.—Ezkonduak, aste edo urte beterako barik, bizi guztirako batzen dira, alkartze ortako korapilloa eriotzaz izan ezik eten eziña data. Pamilia, sendi bat osotu bear da be senar-emaztak; seme-alabak sortu, azi ta ezi; etxeko gora-bera ta zeregiñak al bait artezen atondu ta erabilli. Zur-antzean, bada, arazo onetarako gertatu egin bear, eta erantzukizunetzko arazo itzalgarrri bateri dagokionez gertatu be. Txantxetakoak ez bai dogu ezkontzako ori.

Senar-emazteak, bein guraso izatera eldutakoan, zeregin andi ta naita-eko betebearrez astun daukazuz: onetako bat, seme-alabak sasoi-ko egi-tean, ezkondu ta bizibide iraunkorrean ipintea. Baiña ez begiez sekula be ariñegi ezkondu ta karga astunpean ezarri; itxaron begie errazoizko adiñera arte, ots, mutilla ogeitik ogei ta zortzira eldu arte, ta neskea emeretzitik ogei ta laura. Auxeda, nunbait, sasoirik egokiena ezkontzeko.

Askotxu ikusi daroaguz zoritxar zigorpean lar arin ezkontzeagaitik. Zugatz gaztetxoari karga andiegia emon dautse. Eta, jakiña, ezin etsi. Amazortzi urteko neskatoa, geienez beintzat, ez da gauza inguruan kuxumuxu dabilkion mutilla, neska bera zoriontsu egiteko besteko doai ta gai-

tasunez ornidua dan ala ez jakiteko; ez daki, gaiñera, bere seta edo izakera mutillaren jit, era ta gogoaz ondo datorren be. Onetarako izan oi dira ezkondu - aurreko alkar - ikuste, ibilten, maite-erakuste ta abar, senargai ta emaztegaiak alkar ondo ezagutu dagien.

Baiña jakituri au ezta nunbait ikas-erreza. Orretan porrot egindako askotxo ezagutzen doguz, beiñik-bein. Zenbait ezkondu-tako, emazte naiz gizon, biak ezpada gero, barren-oiñaze saminez, gaiñetik hota ezindakoz! Sarri erakutsi oi dauskue samin ori eguneroko autu ta alkar-izketetan. Zergaitik orrela? Autor garratza: laguna, ezkon-laguna, bear aiñean ezagutu barik ezkonduagaitik.

Ez zaarregi.—Beranduko ezkontzak be ez doguz begiko. Neska ta mutillik asko aurkitzen ditugu ezkontzeko asmotan, baiña luzatu egin oi dabe urte batetik bestera, ta oso berandurarte ez dira lotzen. Zentzuna diñosku, orraitino, bizibide au artzea ez dala larregi luzatu bear. Biotz gazteak maite-egarri dira; ezkontzan aurkituko dabe, Jainkoaren begirakun gozopean, berezko griña ta joera au zelan ase, bide zuzenez, lege zintzoz. Ekaitzetik iges egiteko kaia dogu ezkontza; giza-barren-griña orroaka astean, egoki yatzu kai edo portu ortara jotea.

Zetako luzatu zeregin ori urte askotan, ogei ta zortzi, ogei ta hamar edo geiago bear bada? Au makurrerako bidea dozu, ta kontaezin alar oker dakarketzuz. Neska-mutillak sarritan, geroago ezkonduko diralata, artu-emon arrisksuetan bizi dira, bai ta pekatuan okituta be.

Maitakeri loi ta bada-ezpadako oneik garbitu ta legezkotu naita, aitzaki ederrak asmau oi dabez: sendia osotu aurretik, diru apur bat egin bear dala, bizitz-oin bat aukeratu, bizi-modua egokitu ta abar. Alan be, dirua parrastaka eralgi daroe, ta bizi modu alaia eroan. Etxe-sari, etorki edo errentak bear ete dauz mutil gazteak ezkontzeko? Bere esku biak ez ete ditu etorki eder? Izen oneko langille ezkonduak, ezkongek baino geiago aurreztu, gerokotu ta gorde oi dau. Etxe bat dauka, bai ta emazte gazte bat be; au gogora ekarriaz, bere indarrak ugaritu egiten dira. gizondu lenago, zurtasun-gogoa eruaitu ta biztu.

Ezta, ez aitzu gaztaro jorian sortutako seme-alabak osasunez gaiñezka etorri oi dirala, beste doai, bitxi ta edertasun askogaz batera. Zaartzaroen eukitakoak, ostera, erkin, zar-pail ta gexotiak.

Mugonez sartu bediz gazteak ezkontzako bizibidean.

BIZKARGI

